

***EHROMA-ROMA BASCA
DICEMBRE 2010***

Rita Iacomino

e

Harkaitz Cano

**reading alla Libreria Flexi
18/12/2010**

Rita Iacomino

Testi tratti dalla raccolta poetica Amore di Silvia e Atlante, Giulio Perrone Editore.

(maltradotti all'euskara da patxi elizegi eta ander ituartek *hiltzuliak*)

Amore di Silvia e Atlante poesia liburutik jasotako testuak

Harkaitz Cano

Selezione di poesie dell'autore

(tradotte in italiano da Viviana Tomassetti *hiltzuliak*)

Rita Iacomino (1962) vive a Roma. È insegnante e si occupa di arti visive e poesia. Ha pubblicato versi e prose per antologie e riviste. Con la silloge *Luoghi impraticabili della memoria* vince il "Premio Montale 1989" nella sezione inediti (*All'Insegna del pesce d'oro*, 1990). Ha pubblicato la raccolta poetica *Dura Verticale* (Edizioni della cometa, Roma 1999). Nel 2010 vince il Premio Logos V edizione con *Amore di Silvia e Atlante* (Perrone editore). Ha recentemente vinto la terza edizione del premio *Quaderni Linfera 2010* con il "Poemetto tra i denti", sua opera inedita che verrà pubblicata nel dicembre 2011.

Rita Iacomino (1962) *Eroman bizi da. Irakaslea da eta arteaz eta poesiaz arduratzen da. Poesia eta prosa argitaratu du aldizkari ezberdinetan. Luoghi impraticabili della memoria liburuarekin 1989 urteko Premio Montaleko argitaratu gabekoen atala irabazi zuen. Dura Verticale (Edizioni della cometa, Roma 1999) argitaratu zuen. 2010ean Logos Vedizione saria irabazi du Amore di Silvia e Atlante liburuarekin (Perrone editore). Azkenaldi honetan Quaderni Linfera saria irabazi du "Poemetto tra i denti" lanarekin eta 2011 urtean argitaratuko dute.*

Harkaitz Cano è nato a San Sebastian (Paesi Baschi) nel 1975. Ha lavorato come sceneggiatore per TV, radio, fumetti, e tradotto in basco diversi autori, tra i quali Hanif Kureishi e Allen Ginsberg. Scrive, oltre alla poesia, letteratura per ragazzi, racconti e romanzi. Ha pubblicato la ucronia *Belarraren ahoa* (La lama dell'erba), il romanzo *Beluna jazz* e un libro di cronache frutto del suo rapporto con New York: *Piano gainean gosaltzen* (Colazioni su un pianoforte). I racconti *Neguko zirkua* (Circo d'inverno) hanno ricevuto il "Premio de la Crítica" nel 2006. Collabora abitualmente con artisti e musicisti: *FasTFatum*, *Joserra Senperena*, *Txuma Murugarren*, *Oskorri*, *Jabier Muguruza* e altri. I suoi romanzi sono stati tradotti in castigliano e in russo e tra poco lo saranno in greco, inglese e tedesco.

Harkaitz Cano (Lasarte 1975) *Poesiaz gain gazteentzako literatura, ipuiak eta nobelak argitaratu ditu. Telebista, irratia eta komikitarako gidoiak idatzi ditu eta Hanif Kureishi, Allen Ginsberg eta abar euskarara itzuli ere. Belarraren ahoa ukronia, Belluna jazz nobela eta Piano gainean gosaltzen New Yorkeko kronikak argitaratu ditu besteak beste. Neguko zirkua liburuak 2006 urteko Kritika Saria jaso zuen. Artista eta musikari ugarirekin kolaboratzen du: FasTFatum, Joserra Senperena, Txuma Murugarren, Oskorri, Jabier Muguruza eta abar. Bere nobelak gaztelaniara eta errusiarrera itzuliak izan dira eta aurki grekera, ingelesa eta alemanera itzuliko dira.*

RITA IACOMINO

ATLANTE

I

Ecco nel suo incedere un baluginio di presenza:
il cuore e l'anima vivono dove vive lei
sempre altrove: boschi, fontane,
grotte gremite di capelvenere...
Riconoscibili sembianti
familiari e imprevedibili.
Cenni, mi assicurano che il tempo non è immobile corazza
ma maglie aperte di luce per vedere l'eternità.
Maglie, maglio che sbatte sul cuore,
la bellezza appartiene a chi la vede
la perdita pure.

SILVIA

I

La bellezza è il senso e il presupposto dello stare.
Agire, non agire,
in uno spazio limitato è anche data l'illusione di fuggire.
Ma sono sepolta in questa spelonca.
Lentamente, mio padre si gira su un fianco,
nessuno che gli faccia sponda.

RITA IACOMINO

ATLANTE

I

Hara bere urratsean presentziaren izpia:
bihotza eta arima hura bizi den horretan bizi dira
beti beste nonbait: basoak, iturriak,
iturri belarrez beteriko leizeak...
Itzal ezagunak
senitarteko eta harrapaezinak.
Imintzioak, denbora koraza mugiezina ez dela ziurtatzen didate
baizik eta eternitatea ikusteko argi oihal irekiak.
Oihalak, bihotza jotzen duen mailua,
edertsasuna ikusten duenarena da
galera ere bai

SILVIA

I

Edertasuna da egotearen zentzua eta aurre zantzua
Ekin, ez ekin,
espazio limitatu batean emana da ihesaren irudipena ere.
Baina koba honetan ehortzirik natza.
Mantso mantso, nire aita alde batera jiratzen da
eutsiko dion inor gabe..

Al centro del sonno zampilla di nuovo
una fontana sporca
alcune luci s'accendono, altre no,
così un ovaio funziona meglio dell'altro
un amore è più profondo d'un altro
una parola in certe vite è già tanto.
Barca del sonno
che mi hai portato avanti e indietro
per la mia stessa vita
che hai mostrato meglio
la forbice e la ferita
come posso riparare
il verso delle cose ormai logoro
o ascoltarti, sirena del pianto,
posso disseminare il resto del mio sogno
per la pietra bianca
e vedere poi dai semi se qualcuno cresca.

Loaren erdian

iturri zikinaren txorroa berriz ere
pizten dira zenbait argi, beste zenbait ez,
eta honela obario bat bestea baino hobeto dabil
amodio bat beste bat baino sakonago
bizitza batzutan hitz bat nahiko.

Loaren txalupa

nire bizitzan bertan
aurrera eta atzera eraman nauzuna
artazia ta zauria
hobeki erakutsi duzuna
nola konpondu ahal dut
gauzen alde erantzia, lorrindua jada
ala zu entzun, negarraren sirena,
sakabanatu ahal dut nire ametsaren hondarra
harri zurian
eta aleetan begiratu ea baten bat hazten den.

Continuo ad invitarli
ma non ho più fiducia negli ospiti.
Perché dovrei fingere
ridere e parlare
la coscienza arde precisa
chi verrà a sedersi
alla mensa del fuoco illimitato?

Chiome d'alberi ingombrano il cielo,
oscurano i sentieri che mi portano a te.
Sei tra i cespugli, tra i sassi dei torrenti, dentro le cortecce, ed io
in solitario colloquio col cane, ti perdo, lungo tutte le piste.

Inbitatzen jarraitzen ditut
baina gonbidatuetan ez dut itxaropenik.
Zertarako itxurak egin
parre, mintzatu.
Kontzientzia zehatz erretzen da,
nor etorriko da
su amaigabearen mahaira esertzera?

Zuhaitzen hostotzek zerua dute betetzen
zugana naramaten bidexkak iluntzen.
Sasi artean zara, erreka-harri artean, oskolen barruan, eta nik
zakurrarekin elkarrizketa bakartian, galtzen zaitut, pista orotatik.

Dentro una sfilata di parole tutte uguali,
non collegate tra loro e senza senso,
appare la catena, intrecciata mano a mano
del tuo smemorante delirio.

Un legarsi tra loro di cose vive e vere
come una treccia d'aglio sulla parete
o il rosario nelle mani di un vecchio.
Stai componendo il breviario del trapasso
senza mai usare la parola addio.

Sogni di segni sottili
di dialoghi dementi
sul limite del giorno.
Notte inspiegabile
cuneiforme.

Hitz guztiz berdinak diren desfile baten barru,
haien artean loturarik ez eta zentzurik gabe,
katea agertzen da, zure delirio ahazkorrarekin
eskuz esku trentzaturik.

Egiazko eta benetako gauzen arteko lotura
paretan eskegitako baratxuri trentza lez
edota errosarioa agurearen eskutan.

Beste aldera pasatzearen brebiarioa konposatzen ari zara
adio hitza inoiz erabili gabe.

Zeinu sotilen ametsa
egunaren limiteari buruzko
zoro solasa.

Adierazi ezinezko gaua
kuneiformea

Antigone II

Quanto crudele
dentro al respiro
mi perseguita
il nemico mio.

Delicata cerimonia d'addio
che scorporerà
il me dall'io.

Il tempo lavora sfibrando l'ora
ne fa opera minuta
trasparente
che insinua dentro questo
un altro corpo
da cui si staccheranno
uno ad uno
come chiodi da una croce
i nostri anni giovani.

Antigone II

Horren krudel
hatsean barne
segitzen nau
etsai nireak.

Nitik neu
bereiziko duen
adio zeremonia
delikatua.

Denborak lan egiten du orduen hariak askatuz
Harekin egiten du obra txiki
garden bat,
bere gorputzaren barruan
beste bat insinuatzen duena
eta handik askatzen dira
banan banan
gurutze bateko iltzeak bezala
gure gaztetako urteak

HARKAITZ CANO

12 sardinzahar lehenbait lehen kontsumituak izateko

Poema liburu on batek izan behar luke
arrain kutxa batek bezalakoa.

Fosforo eta kaltzio iturri elikagarri freskoa.

Edo izu-laborriz harengandik ihesi
ateratzeko sentipena
sortzen duen deskarga

arrain usteldu, ikatzezko arrainburu, hortz eta begi zorrotzena.

Bietarik bat.

Eta halakoa behar luke,
poema liburu on bat bezalakoa
gure bizitzak.

12 sardine sotto sale per un consumo immediato

Un buon libro di poesia deve essere
come una scatoletta di pesce.

Nutritiva e fresca, fonte di fosforo e calcio.

O fetida discarica
che ci spinga a fuggire
lontano da lì, presi dal panico,

una latta di pesce putrido e teste carbonizzate
di denti e occhi affilati.

Una delle due.

E la nostra vita,
dovrebbe essere così,
come un buon libro di poesie.

Poesia fikzioa da (baita zera ere)

Ez dut uste pertsona atormentatuegia naizenik baina
batzuetan etsipen ikaragarri bat jabetzen da nitaz
zer egingo zaio
gauzak aldatzen doaz
gure garai bateko eskolakide bat
opuseko neska batekin ezkontzekotan dago
eta beste batek legezkanpoko arrantzan
itsasoan daramatza bederatzi hilabete, haurdunaldi oso bat
agian petsona bihurtuko zen itsasoaren sabelean
amarenean egin ez zenez gero
eta batzuetan etsipen ikaragarri bat jabetzen da nitaz
zure bakardadeak nirearen aurka talka egindakoa
min ematen didalako
sentipen honek zeraren antza dauka,
nola esan, hogeita bat urte betetzean
guk hamahiru genituenean bederatzi zituzten neskek
jada hamazazpi zituztela deskubritzearen antzeko zerbait.
Gau baten amaieran ohartzea, bortitz eta bat-batean.
Egunsenti errudun hori eta izango zirenik ere imajinatzeraz ausartu ez
ginen bular guri horiek
ez zirela egundo gureak.
Ez dakit ulertzen den horrela esanda.
Konturatzen garela honetaz eta hartaz
gure injenuitateari zegozkion edalontzi guztiak
hustu ditugula.

Akatsik ttikienengatik galtzen dugula zorion handia:
horregatik dira akats ttikienak mingarrienak.
Akats handiak ez hainbeste. Euren barruan bizi gaitezke.

Larritu gintuzten zenbait gauzei buruz
barre egitea liteke terapia bakarra
eta hori ere ez da nahikoa
ikustezin bihurtzeko ispiluak izaraz estaltzea
aski ez den bezala. .

La poesia e' finzione (e un corno)

Non mi considero una persona troppo tormentata,
ma a volte la rassegnazione si impossessa di me.

Che possiamo farci, tutto cambia.

Un vecchio compagno di classe sta per sposarsi
con una ragazza dell'opus dei;

un altro sta pescando illegalmente in mare

da più di nove mesi;

nove mesi, una gravidanza intera,

chissà che nel ventre del mare non sia diventato una persona,
più di quanto ci sia riuscito in quello della madre.

A volte una tremenda rassegnazione si impossessa di me,

perché, quando la tua solitudine si scontra con la mia,

mi fa male.

Questo sentimento assomiglia -come spiegarlo-

a quando compiamo ventun anni e scopriamo

che le ragazze che avevano sette anni quando noi ne avevamo tredici
ora ne hanno diciassette.

Scoprire bruscamente, alla fine di una notte,

che quell'alba colpevole e quei teneri seni

che non mai abbiamo mai osato immaginare potessero essere nostri,

ormai non lo erano.

Non so se detto così si capisce.

Che ci rendiamo conto di questo e di quello,

che abbiamo già dato fondo a tutti i bicchieri della nostra ingenuità.

Che perdiamo la più grande felicità a causa del più piccolo errore:

per questo i più minuti errori sono i più dolorosi.

I grandi errori, non tanto.

Possiamo viverci dentro raggomitolati, o girarci intorno.

Invece che fare

con un errore grande come un'ala di insetto?

Il riso è l'unica cura

per certe faccende che ci preoccupano.

Ma nemmeno questo è sufficiente.

Como non lo è coprire specchi con lenzuola

per essere invisibili.

Hori batez ere. Hori eta bizitzan galtzen dugun guztia,
agur edo konplizitate keinu bat
garaiz eta aspaldi ez egiteagatik

galdu dugula.

Abenduak 29 eta hotzak jota

Hitzordu bat. Adibidez hemen
orri zuri honetan.

Zita baten zain derrigorrezkoak diren hitzetan pentsatuz,
bakarrik. Beste ezertan ez. Bakarrik hitz horietan pentsatuz.

Jendea pilatzen ari da zubietan
bakarka edateko
binaka edatekoak diren likoreak.

Zaldi karrerak lurpean.
Hozkailu-kamioietako gakoetan behi haragiaren ordezt
xeloak zintzilik.
Biren artean mahaian hedatu aurretik
mantel batek airean sentitzen duen poz esekia.

Gabonak dira, laguntza
eskatzen dute trapuzko hartzek
eskaparateetako sasietan harrapatuta.

Bihar belauntzi batek naufragatuko du giza galeren
galerian, baina guri zer.

Ahoko lurruna eta bizarrean itsatsi jelazko lanpernak
kale hauetan oinez ibiltze hutsa
zoriontsu izatearen pareko dela
gogorazi nahian.

Soprattutto, questo. E che tutto quello che perdiamo nella vita, lo abbiamo perso per non aver eseguito con prontezza, ormai tanto tempo fa, un adagio, un saluto o un gesto

di complicità.

29 dicembre, morto di freddo

Un appuntamento. Qui per esempio, su questa pagina in bianco.

Pensando solo nelle esatte parole in cui uno deve pensare mentre aspetta. Solo pensando quelle parole.

Gente solitaria si ammucchia sui ponti per bere liquori che si dovrebbero bere in compagnia.

Sottoterra c'è una corsa di cavalli. Dai ganci dei furgoni frigoriferi pendono violoncelli al posto della solita carne di cavallo. Una tovaglia si issa al vento per un istante proprio prima che due persone la stendano sul tavolo.

E' Natale, chiedono aiuto gli orsi di peluche imprigionati tra i rovi degli scaffali.

Domani naufragherà un veliero nella galleria delle perdite, ma che importa.

Vapore nella bocca e ti rendi conto del gelo attaccato alla barba di qualche giorno. Tutto un promemoria, un appunto per non dimenticare che in queste strade, camminare ed essere felice sono la stessa cosa.

Teilatueta lan egiten duen jendea

Zure agendan egonagatik sekula
ezagutu ez duzun jende hori da.
gogoratzen saiatu arren arrotzak zaizkizun
izen eta zenbaki horiek guztiak.

Teilatueta lan egiten duen jendeak ez dizu sekula aitortuko
baina badaki
zerua ez dela urdina
samuraien izarekin egindako banderen zurrumurrua bereizten badaki
haizearen menera dagoenean.

Teilatueta lan egiten duen jendeak, jende horrek du
benetako bertigoa.

Teilatueta lan egiten duen jendeak ezingo luke
gau-club batean edo kafetxe bateko hormen artean lan egin.
Teilaren bat aske egon daitekeen susmoa dutenean
trazatu keinuak adierazten duen eran,
teilatueta lan egiten duen jendea tango zalantzatien
irakasle izan zen
ez hain aspaldiko bizitza batean.

Teilatueta lan egiten duen jendeak presa-orduak eta jende pilaketak
saihesten ditu
jendetzak eta autobusek eta leuzemiaren usainak eta gehiegi hitzak
mundua bere buztinezko artesietatik
amilarazteko arriskua balego bezala.

Teilatueta lan egiten duen jendea ez da fido
goizeko bostetan kale hutsez ere,
eta teilatuetatik jaisten den apurretan
espaloia utziz errepideko zebrabidea zapaldu aurretik
oin bakar batez ziurtatzen du lehenbizi
asfaltuaren gogortasuna, zer gerta ere,
oinen pean ibai izoztu bat
hondoratuko zaion beldurrez.

Persone che lavorano sui tetti

Sono persone che, nonostante stiano sulla tua rubrica,
non riconosci.

Tutti questi numeri e nomi che ti sono estranei,
anche se cerchi di ricordarli.

Loro, le persone che lavorano sui tetti,
non lo confesseranno mai, ma conoscono
il colore del cielo.

Sanno che sopra gli uccelli non è blu.

Le persone che lavorano sui tetti, loro si
hanno delle vere vertigini.

Le persone che lavorano sui tetti
non potrebbero lavorare in un night club
né tra le quattro pareti di un bar.

Dal gesto che disegnano
quando sospettano che una tegola possa cadere,
intuiamo che in una vita non troppo lontana,
furono indecisi insegnanti di tango.

Le persone che lavorano sui tetti odiano
le ore di punta, evitano gli agglomerati,
come se la moltitudine, gli autobus, l'odore di leucemia
o la parola troppo fossero la causa del sovrappeso,
del lento abbandonarsi del mondo
tra le fessure di argilla.

Le persone che lavorano sui tetti non si fidano
nemmeno delle strade vuote delle cinque del mattino,
e le poche volte che si avventurano giù dai tetti,
prima di calpestare le strisce pedonali abbandonando il marciapiede,
saggiano con il piede la consistenza dell'asfalto,
non si sa mai, per paura che la crosta di un fiume gelato
si squarci sotto di loro.

Ijitoak

Ijito haiek beti zebiltzan
teilatu zapalean dantzan,
ulertezina zena
etxe hark ez baitzuen inongo eskailerarik
ez eta teilaturik ere.

Ijitoak Urbarten bizi ziren
bizikleten hilerriaren bestaldean
etxeen eskeletoen artean kizkurturik.
Urteak zeramatzaten etxe haiek erdi-eraikian, geldirik,
errail alderantzizkatuz osaturiko eskeleto
birikarik gabeko korazak, alkondara laranjak zintzilik
zituzten hormigoizko aldarnioak.
Gauetz sua egiten zuten, herriraino heltzen zen
izerdi eta neumatiko erreen usaina.
Lagun batek zera esan zigun behin
ijitoen izerdia beltza zela, kanibalen oinordeko
zirelako.

Mihizintzoek kontaktzen zutenez, ehunka ziren
eta alkateak berekin ekarri zituen
aterpe truk boto eskubidea eman
eta hauteskundeak berriro irabazteko asmoz.
Bizikleten hilerriaren bestaldean erditzen ziren
bertan lurperatzen zituzten
errautsezko ring-etan
gaueko ganibeta borroketan hildakoak
munduaren ezkutuan, zakurren amets eta
zaunken artean.
Guk beldur genien:
hiriko bizikletak lapurtu eta beltzez
margotzen zituzten, guk sekula gehiago ez ezagutzeko
moduan.
Bazen bat Agoacao izenekoa
klake dantzaria izan nahi zuena.

Gitani

Quei gitani
che ballano sempre sui tetti piatti delle case;
qualcosa di incomprensibile,
perché su quelle case non c'era modo di salire,
non avevano nemmeno dei tetti.

I gitani vivevano a Urbarte,
dall'altro lato del cimitero di biciclette,
acciambellati tra gli scheletri rachitici
degli edifici.

I lavori erano fermi da anni,
mere strutture grigie che lasciavano intravedere
casce di scale, travi volanti, piloni distanziati.
Tutte le notti accendevano un fuoco, e in paese arrivava
l'odore di abiti da lavoro e pneumatici carbonizzati.

Un amico ci disse una volta che sudavano scuro,
che il sudore dei gitani era come vernice,
erano discendenti dei cannibali.
Noi, gli credemmo.

Raccontavano le malelingue
che erano centinaia di diavoli, uccelli predatori che il sindaco
aveva portato in paese per vincere di nuovo le elezioni,
offrendogli riparo contro la tempesta in cambio di voti.
Partorivano i loro figli dall'altro lato del cimitero di biciclette,
e li sotterravano i morti di notte
in risse affilate con spade e pugnali;
li sotterravano i figli dei morti,
che avevano lo stesso nome dei figli che erano tornati,
li li sotterravano, in un quadrilatero di cenere,
alle spalle del mondo, tra latrati e sogni
di cane.

Noi li temevamo.

Bazen musugorri bat, Tonetti lez ezaguna
eta baita betizu bat ere, Malasnoticias deitzen zutena
beti esaten baitzuen edozeren aurretik “berri txarrak
dakartzat aixkideak”
berdin esateko gero erdi negarrez
“hiltzera zoak hermano Pepe”
edo eransteko “ezkontzera zoak hermana
Carmencita”.
Harentzat ez zen berri onik.

Haiek maitatzen hasi nintzen
-beranduegi, aitortzen dut-
Malasnoticias melatu hura niganaino etorri
eta galdegin zidanean
errutinazko “berri txarrak dakartzat” haren ondotik
ea ni nintzen zapata-dendako payitoa.
Hala entzun zuen, hala esan zioten.
Egun euritsua zen eta zapata pare bat nahi zuen
Agoacao lurperatzeko.

-Zakurrek ez diezazkioten ametsak hozkatu, payito.

Para que los perros no le muertdan los sueños

Rubavano le nostre bici e le dipingevano di un nero cannibale,
perché non potessimo più riconoscerle.

Uno si chiamava Federico García,
ma tutti lo chiamavano Agoacao
e voleva diventare ballerino di tip tap.

Ce n'era un altro con le guance rosse, conosciuto
come Tonetti
e anche un altro dallo sguardo schivo, che si faceva chiamare
Il Bruttonotizie,
perché era la sua forma di salutare:
"amico, ho brutte notizie",
per aggiungere di seguito tra i singhiozzi:
"tuo fratello Pepe morirà presto",
o per dire posseduto da folle allegria:
"Carmencita si sposa, andiamo a festeggiare".

Iniziai a volergli bene
-troppo tardi, lo riconosco-
quando Il Bruttonotizie,
sprofondato fin dentro le ossa,
mi si avvicinò piano
e domandò dopo il "ho brutte notizie" di rigore,
se io ero "veramente" il gagiò del negozio di scarpe.
Così gli avevano detto, così aveva sentito.

Era un giorno di pioggia
e Il Bruttonotizie voleva un paio di scarpe
per sotterrare Agoacao.

-Perché i cani non gli mordano i sogni, gagiò.

Para que los perros no le muertdan los sueños

Momentua

*Nire gaztaroa ikusten dut ene begien aurrean
zabaldutako maparen eran.
W. H. Auden.*

Nire gaztaroa ikusten dut ene begien aurrean
zabaldutako maparen eran.
Ikusten dut dardara guztiak arkatza altxa gabe lotuz
honek izan lezakeela zentzu bat.
Ikusten dut horrela funtzionatzen dugula:
Saihetsen arteko barrunbeak harramazkatu norbaiti
eman dezakeen onenaren hoditeria urratu arte.
Eta gero ihes egin, urduri lehortuz
itoginak eskuetan utzi dizkigun arrastoak.

Momentura hurbiltzen garela dirudien
une eskukada bat.

Geronen azala ere ez zaigu
hezurretara atxikitzen
ez da errukitzen, ez du gutaz ezer jakin nahi.

Momentuaz hitz eginen dugu gero, zerbait bageneki bezala.

Momentura hurbiltzen garela dirudien
une eskukada bat.
Ukazio samur batzu, eztiki erranak.
Begietako eraztunetan ere, enbor ebakietan bezala
adina irakur zitekeela erakutsi zizun
osaba hura.

Agian ez zen izan emakume batekin ohean,
agian ez zen izan harrotasunez bete zintuen
bihozkada bat bete zenekoa
momentura gehien hurbildu zinen unea.

Il momento

*Vedo la mia giovinezza come una mappa
distesa di fronte a me.
W.H. Auden.*

Vedo la mia giovinezza come una mappa distesa di fronte a me.

Vedo che unendo tutti i tremiti senza sollevare la matita
potrebbe acquistare un senso.

Vedo che è così che funzioniamo:

graffiando i vuoti tra le costole di qualcuno
fino a lacerare, a compromettere le tubature della sua amicizia,
dopo fuggiamo, asciugandoci nervosi
l'umidità che la perdita ha lasciato sulle nostre mani.

Un pugno di esperienze
nelle quali sembriamo avvicinarci al Momento.

Nemmeno la nostra pelle aderisce più alle ossa,
né si impietosisce, non ne vuole sapere di noi.

Dopo parleremo del Momento,
come se veramente sapessimo qualcosa.

Un pugno di esperienze
nelle quali sembriamo avvicinarci al Momento.

Un mazzo di dinieghi, detti con dolcezza.

Quel tuo zio che ti ha insegnato
che anche negli anelli dell'occhio poteva leggersi
l'età, come nei tronchi tagliati.

Forse non è stato a letto con una donna,
né quando hai avuto quel presentimento
e ti sei sentito tanto orgoglioso,
il giorno in cui più ti sei avvicinato al Momento.

Orain oroitzen duzu: zure osaba
txahal hilberriaren burua aizkoraz ebakitzen.
Zureak ireki zenituen txahalaren begi hiletako eraztunak
azkar zenbatzeko
eta orduan nekez zenekien arren
hura izango zen zure bizitza osoan momentura
gehien hurbilduko zinen unea.

Zuk bost urte zenituen
hotz zen kanpoan
eta txahala zu baino gazteagoa zen.
Aste askotan zure amari galdetu izan zenion
ea hildakoen begietan azkena ikusi zuten hura
mantentzen ote zen luzaro.

Txahala piezatan txikitu eta hirira eraman zuten.
Eta txahalarekin, momentua.

Adesso ricordi: tuo zio che affila l'ascia,
tuo zio che taglia la testa al vitello appena sacrificato.
Apristi i tuoi per contare in fretta gli anelli
negli occhi del vitello morto,
e anche se allora non potevi saperlo
quello sarebbe stato il giorno della tua vita in cui più ti avvicinasti
al Momento.

Avevi cinque anni
fuori faceva freddo
e il vitello era più piccolo di te.
Per settimane hai chiesto a tua madre
se nella retina dei morti resta impressa per molto tempo
l'ultima cosa vista.

Tagliarono a pezzi il vitello e se lo portarono in città.
E con il vitello, il Momento

Txekhov vs. Yahoo

Anton Txekhoven esanetan, hiru bide har ditzake pertsona batek bizitzan:

eskuinekoa hautatuz gero, otsoek irentsiko zaituzte,
ezkerrekoa hautatuz gero, zerorrek irentsiko dituzu otsoak;
erdikoa hautatzen baduzu, zeure burua irentsiko duzu.

Yahoo Chat-en arabera, badira beste hiru:

Available (itxura penagarria: hel niri!)

Busy (bai interesgarria berori, izaki harresitua)

Invisible (ez zaituzte ikusten, ez zara existitzen)

Ikusezin izatea hautatzen dut, zalantza izpirik gabe.
Eta ikusezintasuna hautatzen duten haiekin soilik
izan dezaket etorkizun bat amankomunean.

Maite dut beste izaki ikusezinekin gutun-trukea.
Maite dut haiek marraztea,
haiek marraz nazaten.

Maite dut haiekin.

(el sistema ha detectado un error y ha debido cerrarse inesperadamente. Puede que no se hayan guardado los últimos cambios realizados)

Čechov vs. Yahoo

Anton Čechov diceva che per una persona, nella vita, ci sono tre strade:

Se scegli quella di destra, ti divorano i lupi.

Se scegli quella di sinistra, *tu* divori i lupi.

Se scegli quella del centro, divori te stesso.

La chat di Yahoo assicura che ce ne sono altre tre:

Available (fai pena: aiutatemi)

Busy (sì, sei interessante; tu, murato vivo)

Invisible (non ti vedono, non esisti)

Io scelgo di essere invisibile, senza ammiccare:
e solo con quelli che scelgono l'invisibilità
posso avere un futuro in comune.

Amo scambiare lettere con gli altri invisibili.

Amo disegnarli,

ed essere disegnato da loro.

Amo con loro.

(si è verificato un errore e il sistema si è chiuso inaspettatamente.

Potrebbe essersi verificata la perdita dei dati su cui si stava lavorando.)

Tigre batekin bizi

Alferrik da hona nola heldu zen galdetzea.

Gure aurreko maizterrak ahaztu ote zuen deskuidoz edo maleziaz, leihoak zabalik utzi arau sartu ote zen gu ohartu gabe, geure disko bilduma gorroto duen bizilagunen jukutria ote den edo hilean behin ura, gasa, argindarraren kontaduria aztertzeraz datorren langile buzo-urdinarena.

Irakurri ditut gustuko pentsalariak, Wittgenstein, Cioran, Steiner; baina ez dut haietan erantzunik topatu.

Dakidan gauza bakarra da tigre bat bizi dela gurean.

Hura ikusi gabe egunak ematean ere, jada ez diogu, lehen bezala, joan ote den itxaropenik elkarri aitutzen: badakigu itzuliko dela eta itzuli egiten da.

Tigre bat ez da katu bat, horregatik, ez jakin noiz bukatuko zaizkion bizitzak.

Hor dagoela irudikatze hutsak eragozten digu sarri ohetik ateratzea.

Ehiztari bokazioa piztu behar liguke tigreak, eta ez digu piztu.

Ginen anai-arrebetarik ez gaude guztiok, baina tigrearena da errua?

Beti izan zen haserreren bat haietako bakoitza betirako partitu zedinean eta ez ginen erabat seguru egon tigrearen erruaz, nahiz eta ongi datorren batzuetan tigre bat etxean errua nori egotzi izateko.

Lanera berandu iristean diogu: tigreagatik ez balitz. Batzuetan egia da, beste batzuetan ez.

Vivere con una tigre

Invano indagherai su come è arrivata fin qui.

Se l'ha abbandonata per disattenzione o malizia il vecchio inquilino,
se si è surrettiziamente introdotta dalla finestra,
se si tratta, perché no,
di un brutto scherzo del vicino che odia la nostra collezione di dischi
o del lavoratore in tuta blu che tutti i mesi prende la lettura
di acqua, gas ed elettricità.

Wittgenstein, Cioran, Steiner;
ho letto i miei pensatori di riferimento senza trovarvi risposta.
Però lo so: abbiamo una tigre in casa.

Nonostante i giorni in cui non da segni di vita,
ormai non ci mostriamo, come prima,
speranzosi di una sua possibile partenza;
sappiamo che deve tornare, e lo fa.

Una tigre non è un gatto, è difficile indovinare
quando si estingueranno tutte le sue vite.

La sua sola presenza ci dissuade spesso dal lasciare il letto.

La tigre avrebbe dovuto risvegliare in noi la vocazione di cacciatore, ma
non lo ha fatto.

Di tanti fratelli che eravamo, ormai non siamo più tutti,
ma, dobbiamo dare la colpa alla tigre?

C'è sempre stata una lite prima di una separazione definitiva
e non possiamo accusare con certezza il felino della loro partenza,
anche se a volte fa comodo avere in casa
una tigre a cui dare la colpa.

Arriviamo tardi a lavoro e diciamo: se non fosse per la tigre...

A volte è vero, altre no.

Tigre batekin bizi zarenean erlojuak atzeratu egiten dira,
hain goiz dela ematen du ze, oso berandu dela jabetzen baitzara.

Inoiz ez da uste duzun bezain garaiz.

Gezurra dirudi, tigre batek, atzapar horiekin,
erlojuetako orratzak mugitzeko abildadea izatea.

Berba anpulosa dirudi, baina hala da: denbora geratzeko gaitasuna du.

Beharbada ez genituen ongi interpretatu zeinuak:
hozkaileen faltatzen ziren gauzak, armairu nahasiak,
arropa tarratatuak.

Erne ibili beharra dago, tigre bat bizi bada zurean.

Ez da tigre kumea batere,
baina akaso kumeago zen lehen orain baino.
Gurekin batera hazi da? Tigre heldua zen hasieratik?
Ez ote dira, bat bakarraren orde, bi tigre? Hiru, diozue?
Ez dugu segurantzia erabatekorik.
Etxekoak ez gara horretan ados jartzen,
gutxitan ikusi baitugu osorik:
batzuetan ez da geure bizkarrean sentitzen dugun
presentzia lausoa baino,
noiz hats, noiz kirats:
gure ospakizunen zelatan
geure ametsen aiduru
geure algaren jeloskor
geure lantuen zergatien jakin-min.
Burua jiratu orduko isatsa baino ez diogu ikusten,
arrastaka leun desagertzen.
Oin arrastoak moketan,
zurrunga oihanekoa,
egurrezko zoruaren karranka,
arrasto txikiak, ia ikusezinak izaten dira batzuetan

Gli orologi vanno indietro quando vivi con una tigre,
sembra così presto che, in un attimo, si è fatto troppo tardi.

Non è mai presto come credi.

Non sembra possibile che una tigre, con quegli artigli,
possa far girare le lancette dell'orologio.

Frase grandiloquente, ma vera: una tigre può fermare il tempo.

Forse non interpretiamo bene i segnali:
cose che mancavano nel frigorifero, armadi rivoltati,
vestiti strappati.

Bisogna fare attenzione, quando si ha una tigre in casa.

Non è un cane, ma forse prima è stata più giovane.
E' cresciuta con noi? E' da sempre una tigre adulta?
Non saranno, in mancanza di una, due tigri? Dite tre?
Viviamo senza poterci liberare dall'incertezza.

In casa non ci mettiamo d'accordo,
la abbiamo vista tutta intera appena qualche volta:
a volte non è che un lieve ombra alle nostre spalle,
ora fiato, ora pestilenza:
spia le nostre cerimonie,
scruta i nostri sogni,
diffida delle nostre risate,
si intriga con i nostri pianti.

Quando giriamo la testa, a malapena riusciamo a distinguere la sua
coda

che si trascina piano, scomparendo.

Orme sulla moquette,
ruggiti selvaggi,
scricchiolii di pedana,
piccoli segni, quasi impercettibili,
evidenziano che è ancora lì.

hor segitzen duen seinale.

Entzun izan ditut adituak irratian:
tigrea hau, tigrea hura, tigrea bestea...
Eta nik, neure artean: "lekutan hitz horiek
tigrerik bazenute etxean".

Tigre batekin bizi gara baina ez
ditugu elkarren begiak ezagutzen.

Agudo ikasarazi genion etxeko txikienari oinez,
beldur ginelako ez ote zuen tigreak isekatzat hartuko
bera ez beste inor
lauroinka ikustea.

Inor gutxi ausartzen zaizu etxera bisitan,
tigre bat bizi denean zurean.

Tigre batekin bizi gara la ahaztu egiten dugu sarri,
egun luzetan akordatu ere ez, aizue,
bat-batean aurrez aurre topatzen duzun arte,
egun seinalerik gabekoenean:
demagun asteazken batez, demagun udazkenean,
demagun lanetik etxera goazela, txistuka, nekatuta.

Tigre batzuk nobleak direla diozue?

Tigreak tigreak dira, haratago ni ez naiz ausartzen.

Ez da babes ofizialeko etxea, baina tigre bat bizi da geurean.

Pentsatu izan dugu: etxea saltzea, erosleari deus esan gabe.
Ate guztiak zabalik laga eta aldegin dezan itxoitea,
etxeko iturri guztiak irekita utzi eta guk geuk aldegitia.
Ia denetik pasa zaigu burutik, baina atzenerako, horixe da egia,
ohitu egin gara tigre honekin bizitzen.

Sento parlare gli esperti alla radio:
la tigre di qua, la tigre di là, quell'altra tigre...
E io, tra me e me: "non parlereste così della tigre,
se ne aveste una in casa".

Abbiamo una tigre in casa ma non
ci siamo mai scambiati uno sguardo sincero.

Abbiamo insegnato al più piccolo a camminare presto;
avevamo paura che la tigre si offendesse se qualcun altro
gattonava per casa.

Sono pochi quello che hanno il coraggio di venire a visitarti quando hai
una tigre in casa.

Spesso dimentichiamo che viviamo con una tigre,
i giorni trascorrono senza quasi pensarci,
finché non te la trovi di fronte
quando meno te l'aspetti:
Ad esempio un mercoledì, diciamo in autunno,
ritornando a casa dal lavoro, stanchi e fischiettando.

Dite che alcune tigri sono nobili?

Una tigre è una tigre, più di questo non mi sento di affermare.

Non è una casa popolare, ma abbiamo una tigre in casa.

Lo abbiamo pensato spesso: vendere la casa senza dirlo all'acquirente.
Lasciare tutte le porte aperte e aspettare che se ne vada,
aprire tutti i rubinetti e scappare.
Migliaia di cose abbiamo pensato, ma alla fine, la verità è questa,
potremmo esserci abituati a vivere con lei.

Può svilupparsi dell'affetto nei confronti di una tigre?

Sor eta gara al daiteke kariñorik tigre batekiko?
Sor eta gara daiteke, baina tigrea tigre da,
ez ditu bere marrak eranzten.

Arra da ala emea? Berrogeita hamar urte ditu?
Hamabost? Hirurogeita hamabi? Bostehun?
Afalostean, hark miazkatutako intxaurrek jan bitarte,
tigrearen adinaz mintzatzen gara isilpean:
zahartu ote den batere, moteldu edo zabartu,
ez ote den dena iruzurra,
ez ote den tigre baten kareta mozorrotutako
deabru bizkarroiren bat.

Zehatz eta zuzen nahi nuke idatzi tigrearen marra bihurrietan.

Kalean barrena jendeari so, ez naiz galdetzera ausartzen:
baduzue zuek tigrerik etxean? Esan egia: badea tigre gabeko etxerik?
Ez ote da Harramazka guztiok bizi garen nazioaren izena?
Ez dute bada esaten, antzekoak gara gizon-emakume guztiok?

Tigre batekin bizi naiz eta ez dakit
asmatuko nukeen bizitzen
tigrerik batere gabe

Può svilupparsi, ma una tigre è una tigre
e non svestirà mai le sue strisce.

E' maschio o femmina? Ha cinquant'anni?
Quindici? Settantadue? Cinquecento?
Dopo cena, mentre rovistiamo tra le noci
che ha mordicchiato, speculiamo sulla sua età:
se è invecchiata, se ha perso riflessi e destrezza,
se non si tratta di un altro inganno,
se non sarà, alla fine, altro che un diavolo parassita
nascosto dietro la maschera di una tigre.

Vorrei scrivere con retta concisione sulle righe storte della tigre.

Mentre osservo le persone per le strade, se appena mi arrischio a
chiedere:

Lei ha una tigre in casa? Confessatelo: esistono case senza tigre?
Non sarà, forse, Graffio il nome della nazione in cui tutti viviamo?
Non dicono, forse, che tutti, donne e uomini, ci assomigliamo?

Vivo con una tigre e, francamente,
ormai non so se riuscirei a vivere
senza alcuna tigre.

Telefonoz deitzen diodan jendea

Badago garai batean asko maitatu eta orain urtebetetze egunean soilik deitzen diozun jendea.
Lan kontuak haizatu eta mesede bat eskatzeko deitzen diozuna.
Fakultateko inozoren bat, zure frakasoaren temperatura berritzeko hots egiten dizuna: “ni ez, baina bera... inoiz ez”.

Badago emazteak utzi zaituenean soilik deitzen diozun jendea (senarrak utzi duenean soilik deitzen dizuna, bestalde).
Badago gertuago balego hainbeste deituko ez zeniokeen jendea.
Badago kontu hartzeko deitzen diozun jendea, kargu hartzeko hots egiten dizuna.

Badago lau urtean behin deitu arren, masailez masail eta arimaz arima izpiritua epeldu eta zurekin dagoela sentiarazten dizun jendea.

Badaude basamortuko ispilukeria diren deiak, komertzial zapuztuak; le interesaría si, le ha tocado un.
Badago jendea, “deituko diat nik berehala”.

beti norbait garrantzitsuagoa duena beste adarrean, eta gero ez du deitzen.

Badago jendea, hari whisky bat ez ordaintzeagatik deitu eta azkenean deia tragoa baino garestiago ordainarazten dizuna.

Badago deitu ezin diozun jendea, haserre dagoelako zurekin, edo kartzelan, edo zutaz ahaztuta, edo hilik; faena bat.

Badago zurekin hitz egiten duen bitartean sudurzuloa haztatzen duela gehiegi nabaritzen zaionik.

Badago jendea sekula telefonoa hartu ez baina beti hor dagoena txirrin-hotsak zenbatzen gela ilunean, edo, xanpaina kopa eskuan, mahats ale bana irensten duena txirrin-hots bakoitzeko.

Badago jendea ez dizuna deitzen, badakielako beste norbaitek hartuko duela agian.

Badago jendea geratzeko deitzen dizuna eta badago bere geratzeko modua telefonoz mintzatzea bera dena.

Badago hilaren hamahiruan deitzen dizuna beti, malenkonia esoteriko apur batez, beharbada.

Persone che chiamo al telefono

Ci sono persone che hai amato tanto ma che adesso chiami a malapena per il compleanno.

Persone che chiami per ventilare questioni di lavoro o per chiedere un favore.

Qualche cretino della facoltà, che chiami per stemperare il tuo insuccesso:

"io no, ma lui... lui mai".

Ci sono persone che chiami solo quando ti ha lasciato la compagna (persone che, d'altra parte, ti chiamano solo quando hanno lasciato il marito).

Ci sono persone che non chiameresti così spesso se stessero più vicino.

Ci sono persone che chiami solo per rinfacciargli qualcosa, persone che ti chiamano per rimproverarti.

C'è chi chiami ogni quattro anni e ti fa sentire il calore delle sue guance nelle tue, gente che ti rinnova lo spirito e il cui battito senti vicino.

Ci sono chiamate che sono miraggi nel deserto, fastidiose pubblicità: è interessata, sì, ne ha vinto uno.

Ci sono persone "ti chiamo tra un minuto", che hanno sempre in attesa qualcuno di importante, e dopo dimenticano di richiamare; persone che chiami per non offrirgli un whisky

e alla fine la telefonata ti costa più di una nottata fuori.

Ci sono persone che non puoi chiamare, perché sono arrabbiate con te, o in carcere, o non ti ricordano, o sono morte: un brutto tiro.

C'è chi si scaccola troppo apertamente quando parla con te.

Persone che non rispondono mai al telefono, ma che restano lì raggomitolate nella stanza scura, contando a uno a uno gli squilli;

c'è addirittura chi, con il calice di champagne in mano, si mette in bocca un acino d'uva ad ogni trillo.

Per non parlare di quelli che non ti chiamano mai, perché sanno che forse non sarai tu a rispondere; persone che chiamano per vedersi

Dakizuna berresteko deitzen diozuna.
Kontra egin diezazun deitzen diozuna.
Edo markatzen hasi eta bere telefonoaren azken zenbakia
jada inoiz gogoan ez duzuna.

Eta gero dago, zu bezala,
oso bakanetan deitzen diodan jendea:
adibidez su-eten bat apurtu,
edota elurra ari duenean kanpoan,
esateko: “eta orain zer?”,
edo, “elurra ari din hor ere?”,
eta zuk: “bai, ari dik”.

e persone il cui modo di vedersi e stare all'apparecchio.
C'è chi, non senza certa malinconia esoterica, telefona puntualmente
il giorno tredici di ogni mese; gente che ti chiama per confermarti quello
che già sai,
amici a cui ricorri perché non ti diano ragione,
o quelli che non riesci a chiamare perché non ricordi mai
l'ultimo numero da digitare.

E poi ci sono quelli, come te,
che chiamo di tanto in tanto,
quando si rompe una tregua o nevica lì fuori,
solo per chiederti: "Allora?"
o forse: "nevica anche lì?"
solo per sentirti dire:
"Sì, nevica"

Trasteak jasotzeko ordua

Amaitu da garagardoan baltsa: paperezko ahozapiak ez dute edalontzi zikinen barruan arrosa zurien antzarik.

Eszenatokia hutsik, aulkiak hutsik. Bihotza hutsik?

Ez urdaila bezain. Lokalak txikiago dirudi orain,

zerbitzariak swingik gabe zenbatzen ditu kaxako txanponak.

Makurtu eta jaso dena: kableak askatu, hildako tigre bati

isatsetik zirika egiten dionak bezala.

Azken inpresio hitsak gain hartu dio txaloen aparrari.

Lokalaren jabea ahozabalka eta lausenguetan uzkur.

Mainontzi hutsak ote gara? Ongi jo ote dugu?

Guk bakarrik dakigu hori, baina ez zaio inori axola.

Geure zauriak miazkatzen ditugun zakur deslaidiak gara.

Ile motxeko neska, zango hegalarikoa, ohean da honezkero,

eskutik helduta zeukan ergelarekin larruz larru.

Laguntzen du pentsatzeak neska esnai egongo dela zugar pentsatzen,

zu, xalo hori, izarapean sartu arte.

Zure ohea harenetik mila legoatara egon arren, laguntzen du.

Leku honek beste leku eta garai bat ekartzen dizkizu akordura.

Antzoki guztietan berdina delako agian larrialdietako irteera.

“Izan gara inoiz lehenago hemen, Charles?”

“Ez, gaurkoa da lehen gaua”. Azkena denentz, auskalo.

Garbitzailea, erratza eskuan, gu joateko zain dago.

Kanpoan euria. Karpetak itxi, tresnei trapua igurtzi,

giltzatu estutxeak, bukatu da, fini.

Geure pausoak arrotz, hiria erbeste.

Zerbait jateko ere, dena itxita egongo da kanpoan.

Dena, zeure zauriak ez beste.

Raccogliendo carabattole

Cessò infine il valzer di coppe: i tovaglioli di carta,
stropicciati nei vasi,

non sono le rose bianche che anelavi.

Il palco vuoto, le sedie vuote. Il cuore vuoto?

Non tanto come lo stomaco. Il locale sembra più piccolo,
un cameriere conta l'incasso senza nessuno swing.

Abbassarsi e raccogliere i resti: tirare i cavi, come chi
strattona la coda di una tigre morta e flaccida.

L'ultima amara impressione annulla la spuma dell'applauso.

Il padrone del locale sbadiglia, parco di elogi.

Abbiamo così tanto bisogno di affetto? Avremo suonato bene?

Solo noi lo sappiamo, ma non importa a nessun altro.

Siamo cani vagabondi che si leccano le ferite.

La ragazza dai capelli corti e gambe alate sarà già a letto
abbracciando nuda il cretino che la accompagnava.

Ti aiuta immaginare che la ragazza resterà ancora sveglia, pensando
a te, alla tua età ancora così ingenuo, finché non scivolerai sotto le
lenzuola.

Anche se il tuo letto si trova a mille miglia dal suo, aiuta.

In questo locale si respira un'aria di altri tempi e altro luoghi

Forse perché in tutti i teatri

l'uscita di emergenza conduce alla stessa identica disperazione.

"Siamo mai stati in questo teatro, Charles?"

"No, oggi è stata la prima serata". Se sarà anche l'ultima, solo Dio lo sa.

La donna delle pulizie aspetta che ce ne andiamo
per passare il mocio.

Fuori piove, chiudiamo le custodie, riponiamo strumenti,
sigilliamo astucci, è finita, fuori, addio.

Per mangiare, sarà già tutto chiuso.

Tutto, tranne le tue ferite.

Associazione Culturale Euskara
Dipartimento di Lingua e Cultura Basca
dell'Upter

WWW.EUSKARA.IT